

URRETXU-ZUMARRAGA **Igerilekuan irakurtzeko aukera**

Urretxuko Udalak udako liburutegia ireki du, igerilekuan, uztailaren 1etik abuztuaren 31ra arte

A. G. Donostia

Urretxuko Udalak udako liburutegia ireki du igerilekuan. Liburu eta aldizkariak hartu eta bertan irakurtzeko aukera jarri dute. Aurreko urteetan bezala, igerilekuko karneta edota nortasun agiria aurkeztuz liburu eta aldizkariak hartzeko aukera egongo da.

Abuztuaren 31ra arte egongo da liburutegi berezia irekia. 15:30etik 20:00etara zabalduko dute -larunbatetan itxi egingo dute zerbitzua-. Zumarragako Udalak, bestalde, Zelai Arizti parkean udako liburutegi moduko bat prestatu du. Udal liburutegiaren osagarri izango da. Bertan, haurrentzako eta gazteentzako bildumak egongo dira egunkari eta aldizkariekin bat.

Uztailaren 23ra arte egongo da udal liburutegia martxan. Astelehenetik ostiralera 11:30etik 13:30era egongo da irekia.

Iparragirre sariak

Bestalde, Urretxuko eta Zumarragako udalak antolatuta, Iparragirre literatur sariak aurkeztu dituzte. Bertsopaperak, narratiba eta poesia lanak aurkezteko epeak irailaren 24a arte iraungo du. Urretxuko Aizpurunea kultur etxera eta Zumarragako Zelai Arizti kultur etxera bidal daitezke lanak.

UDAKO LIBURUTEGIAK

Urretxuko Pagoetako udal igerilekuan. 15:30etik 20:00etara, abuztuaren 31ra arte; larunbatetan itxita.

Zumarragako Zelai Arizti parkean. 11:30etik 13:30era, uztailaren 23ra arte, astelehenetik ostiralera.